

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresak mundu mailako biztanle denak hartzen ditu kontuan, beraien erosotasuna hobetzeko nahiarekin.

Gure enpresan, aurretik inork sortu ez duen aterkin erosoago bat sortzea dugu helburu.

Ondorio honetara heltzeko, gure egunerokotasuneko esperientzian oinarritu gara: Euskadin bizi gara, eta hemen urteko egun askotan euria egiten du, beraz, aterkia erabiltzera “derrigortuta” gaude buzti nahi ez baldin badugu behintzat. Batzuetan euriarekin batera haizea ere egiten du eta egoera hauetan, askotan aterkiak hegan edo apurtu egiten dira, horrezgain, euria ari duen bakoitzean aterkia eusteko eskuak behar direnez, eskuak hoztuta amaitzen dute. Beraz, egoera honekin amaitzeko objektu berritzaile bat diseinatu dugu.

Guk sortuko ditugun euritakoek bi ezaugarri berri izango dituzte: alde batetik, aterkia eskurik gabe eraman ahal izango da, horretarako, diseinu bat sortu dugu non aterkia “motxilatxo” antzeko batean eraman ahal izango dugun. Bestetik, aterkiak berak, poltsatxo bat esleituta izango du eta horrela, euria gelditzen den momentuan aterkia bertan gorde eta galtzeko edo lapurtzeko arriskuak murriztuko dira.

Honen harira, bi produktu sortuko ditugu:

- Eskuak libre izateko aterkia: Produktu honek euria egiten duenean eskuak libre izatea ahalbidetuko du eta erosoago joango gara kaletik. Produktu hau 20€-tan salduko dugu
- Poltsatxoa: Euria amaitzerakoan euritakoa eramateko tokia izango da. Hau bizkarrean eramango da eta horrela eskuak libre izango ditugu, kargarik gabe. Poltsatxo honek 15€ balioko du.
- Aterkia + Euritakoa: Bi produktuak batera salduko dira, norbaitek biak nahi baditu. Biak aldi berean erosten badira, 30 € balioko dute. Bi produktuek 5 euroko beherapena izango dute.

Aurretik aipatu dugun bezala, euritako berri honekin hainbat arrisku murriztu daitezke, esaterako, aterkia lapurtzeko edo galtzeko arriskua, eskuetan mina hartzeko arriskua, gaixotzeko arriskua...

Beraz, gure enpresak edonork erabil dezakeen aterkin bat sortuko du, bere diseinuari esker, oso erraza izango da aterki hau erabiltzea, ez da inolako laguntzarik beharko motxilatxoa jartzeko.

Aterki hauek eskuratzeko, gure enpresak online denda bat zabalduko du, eta horrez gain, zuen herrietako zenbait dendetan ere salgai izango dituzue. Informazioa eskuratzeko sare sozialak ere izango dituzue.